**UDALBATZAK 2010EKO OTSAILAREN 26AN EGINIKO OHIKO BILKURARI DAGOKION AKTA**

Errenteriako Udaleko bilkura-aretoan, bi mila hamarreko otsailaren hogeita seiko 08:30 zirela, lehenengo deialdian eta Juan Carlos MERINO GONZALEZ alkate jaunaren esanetara, ondoko zinegotziak elkartu dira:

- Joaquin ACOSTA PACHECO
- Mª del Mar CARRILLO GASCON
- Silvia ASTORGA MARTINEZ
- Jesus OFICIALDEGUI RUIZ
- Joseba ECHARTE MARTIN
- Jose Angel RODRIGUEZ MEDINA
- Mikel DURAN GONZALO
- Juan Carlos MURUA ROMA
- Itsasne ALVAREZ DE EULATE LASA
- Luis Santiago ANGULO MARTIN
- Agustina Ana CANO CEREIJO
- Iñaki QUERALT COIRA
- Gorka MAUDES MIGELTORENA
- Maite PEÑA LOPEZ
- Venancio GRAVINA ESNAL
- Jose Manuel FERRADAS FREIJO
- Jose LEGORBURU AYESTARAN
- Lucia PERALTA RODRIGUEZ
- Mª Angeles BASTOS FERNANDEZ
- Joxe BURGOS VIÑARAS

Era berean, bertan dago udal kontu-hartzaile Jose Mª ARENZANA GARCIA jauna (Jakinarazten dut Gai Zerrendako 12. puntuan bilkuratik alde egin zuela).

Bertan dago, egintzaz fede emateko, Francisco Javier LESCA EZPELETA idazkari jauna.

**ACTA DE LA SESIÓN ORDINARIA DE PLENO DE LA CORPORACION CELEBRADA EL DIA 26 DE FEBRERO DE 2010**

En la Casa Consistorial del Ayuntamiento de Errenteria, siendo las 08:30 horas del día veintiseis de febrero del año dos mil diez, se reúnen en primera convocatoria, bajo la Presidencia del Alcalde Don Juan Carlos MERINO GONZÁLEZ, los siguientes Concejales:

- Joaquín ACOSTA PACHECO
- Mª del Mar CARRILLO GASCÓN
- Silvia ASTORGA MARTÍNEZ
- Jesús OFICIALDEGUI RUIZ
- Joseba ECHARTE MARTÍN
- José Ángel RODRÍGUEZ MEDINA
- Mikel DURÁN GONZALO
- Juan Carlos MURUA ROMA
- Itsasne ALVAREZ DE EULATE LASA
- Luis Santiago ANGULO MARTÍN
- Agustina Ana CANO CEREIJO
- Iñaki QUERALT COIRA
- Gorka MAUDES MIGUELTORENA
- Maite PEÑA LÓPEZ
- Venancio GRAVINA ESNAL
- José Manuel FERRADÁS FREIJO
- José LEGORBURU AYESTARAN
- Lucía PERALTA RODRIGUEZ
- Mª Ángeles BASTOS FERNÁNDEZ
- Joxe BURGOS VIÑARAS

Asiste el Interventor Municipal D. Jose María ARENZANA GARCÍA (se hace constar que abandona la sesión finalizado el punto nº 12 de los del Orden del Día).

Asiste asimismo y da fe del Acto, el Secretario General D. Fco. Javier LESCA EZPELETA.



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

**1.- Udalbatzak 2009ko abenduaren 18an eginiko ohiko osoko bilkurari dagokion aktaren irakurketa eta onespena, bidezkoa bada.**

Idazkariak, Udalbatzak 2009ko abenduaren 18an eginiko ohiko osoko bilkurari dagokion akta irakurri ondoren, zinegotziek onartu dute. Itsasne Alvarez de Eulate Lasa andrea (atxiki gabeko zinegotzia) abstenitu da, hain zuzen, bilkura horretara ez zelako etorri.

**1.- Lectura y aprobación en su caso del Acta correspondiente a la sesión ordinaria de fecha 18 de diciembre de 2009.**

Leída por el Secretario el Acta correspondiente a la sesión ordinaria de fecha 18 de diciembre de 2009, se aprueba con la única abstención de Dª Itsasne Alvarez de Eulate Lasa (Concejales no Adscritos), por no encontrarse presente en la celebración de la citada Sesión.

**2.- Ondorengo ebazpenen berri ematea: Alkatearenak (60 zk.tik 212 zk.ra, biek barne), Zinegotzi-ordezkarienak (136 zk.tik 297 zk.ra, biek barne) eta Tokiko Gobernu Batzordearenak.**

Idazkariak Alkateak (60 zk.tik 212 zk.ra, biek barne), Zinegotzi-ordezkariek (136 zk.tik 297 zk.ra, biek barne) eta Tokiko Gobernu Batzordeak eginiko ebazpenen berri eman du.

Udalbatza jakitun geratu da.

**2.- Cuenta de Resoluciones del Alcalde (nºs. 60 al 212, ambos incluidos), de Concejales Delegados (nºs. 136 al 297, ambos incluidos) y de la Junta de Gobierno Local.**

El Secretario da cuenta de las Resoluciones del Alcalde (nºs. 60 al 212, ambos incluidos), de Concejales Delegados (nºs. 136 al 297, ambos incluidos) y de la Junta de Gobierno Local.

El Pleno queda enterado.

**2.- Alkatetzak 2010-02-12an emaniko dekretuaren berri ematea, Alkarbide Taldearen idazkaria izendatzeko.**

Alkatetzak 2010-02-12an emaniko dekretuaren berri, Ibai ROSA ITURRIA Alkarbide Udal Taldearen idazkari, %12,5eko dedikazioarekin, izendatzeko.

Udalbatza jakitun geratu da.

**3.- Dar cuenta del decreto de Alcaldía de fecha 12-02-2010 relativo a nombramiento de Secretario del Grupo Alkarbide.**

Se da cuenta del decreto de Alcaldía de fecha 12-02-2010 por el que se nombra a Ibai ROSA ITURRIA Secretario del Grupo Municipal Alkarbide, con dedicación del 12,5%.

El Pleno queda enterado.

**4.- Galtzaraborda Mendebaldea 10. Areako 10/01 (Pilotalekua) E.U.ari buruzko Xehetasun Azterlanaren 1. Aldaketa. Behin betiko onespena.**

**Aurrerakinak.**

**4.- 1ª Modificación del Estudio de Detalle, referido a la U.I. 10/01: Frontón del Area 10: Galtzaraborda Oeste. Aprobación definitiva.**

**Antecedentes.-**



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2009ko abenduaren 18an eginiko bilkuran, hasierako onespena eman zion, ***Galtzaraborda Mendebaldea 10. Areako 10/01 (Pilotalekua) E.U.ari buruzko Xehetasun Azterlanaren 1. Aldaketari,*** VAUNM arquitectura y urbanismo, S.L.P.-ek egina 2009ko azaroan.

La Junta de Gobierno Local, en sesión celebrada con fecha 18 de diciembre de 2009, acordó aprobar inicialmente el documento de la ***1ª Modificación del Estudio de Detalle, presentado a instancia de parte, de la U.I. 10/01: Frontón del Area 10: Galtzaraborda Oeste***, redactado en noviembre de 2009 por VAUNM arquitectura y urbanismo, S.L.P.

Erabaki horri zegokion iragarkia 2009ko abenduaren 31n "El Diario Vasco" eta "Berria" egunkarietan argitara eman zen, baita Lurralde Historikoko 2010eko urtarrilaren 12ko Aldizkari Ofizialean, 6 zk.an ere.

El anuncio del referido acuerdo fue publicado en el periódico "El Diario Vasco" y "Berria" de fecha 31 de diciembre de 2009, así como en el Boletín Oficial del Territorio Histórico nº 6 de fecha 12 de enero de 2010.

Jendaurrean egondako garaian Galtzarabordako "Gure Leku" Auzo Elkarteak alegazioa egin zuen, Idazkari Nagusiak eginiko ziurtagirian egiaztatzen denez. Bertan zera adierazten dute:

Durante el período de exposición pública, se ha presentado una alegación suscrita por la AA.VV. "Gure Leku" de Galtzaraborda, tal y como se desprende del certificado emitido por el Secretario General, en la que expresan lo siguiente:

Alegaziogileek behin-betiko onespena atzeratzea proposatzen dute ondorengo arrazoiengatik:

- Auzoak proiektuaren berri jakin behar duela, hain zuzen, gero iritzia eman ahal izateko.
- Proiektuak aldatuak izan direla, eta ondorioz, auzo elkarteak ez dakiela zein den behin-betiko soluziobidea.
- Ezinezkoa zaiela, duten denboraren barruan, proiektuaren berri jakin, aztertu eta auzoari —bere iritzia eman dezan— ezagutzera ematea.
- Alkatea, osoko bilkuran hitza emanda eta gero, ez dela auzora joan aldaketen berri ematera.

Los alegantes proponen el aplazamiento de la aprobación definitiva por las siguientes razones:

- Que el barrio debe conocer el contenido del proyecto para poder opinar sobre el mismo.
- Que los proyectos se han ido modificando y finalmente la AA. VV. no conoce cual es la solución definitiva.
- Que les resulta imposible, en el tiempo de que disponen, conocer, hacer un estudio y darlo a conocer al barrio para que éste opine.
- Que el Alcalde no ha ido al barrio a exponer las modificaciones, como prometió en un Pleno.

2010eko otsailaren 17an, udal arkitekto

Con fecha 17 de febrero de 2010, el



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

Xabier Agirrek gai honi buruzko txostena egin du, udal lege-aholkulari juridiko Vicente Castiellak ontzat emana. Bertan, alegazioari erantzunez, adierazten da alegazioak ez diola Xehetasun Azterlanari eragiten, aitzitik, Auzo Elkarteak denbora gehiago behar duela esaten du. Gainera, baieztatzen du xehetasun azterlana jendaurrean 20 egunez egon behar duela, hots, 2010eko urtarrilaren 13tik otsailaren 4ra, biek barne, Lurzoru eta Hirigintzako 2/2006 Legearen 98. artikuluan legez ezarritakoa betez. Ondorioztatuz, alegazioa ez litekeela onartu.

arquitecto municipal Xabier Agirre, emite informe, conformado por el asesor jurídico municipal, Vicente Castiella, en el que en contestación a la alegación se señala que la misma no incide en el contenido del Estudio de Detalle, sino que la AA.VV. necesita que se prolongue el plazo del período de exposición pública del documento. Y, en dicho sentido, señala que el periodo de exposición pública del estudio de detalle, de 20 días, comprendido entre el 13 de enero y el 4 de febrero de 2010 (ambos inclusive) es el legalmente establecido por el art. 98 de la Ley 2/2006 de 30 de junio de Suelo y Urbanismo, concluyendo por lo tanto, que no procede estimar dicha alegación.

Era berean, txosten horretan bertan aipatu teknikari horiek Xehetasun Azterlanari behin-betiko onespena ematearen alde azaltzen dira.

Igualmente, los referidos técnicos en el mencionado informe, informan favorablemente la aprobación definitiva del Estudio de Detalle.

*Adierazitako guztiagatik.*

*A la vista de lo expuesto.*

Eta Hirigintza Batzordearen proposamena ikusitakoan.

Vista la propuesta de la Comisión Informativa de Urbanismo.

Mintzatu dira:

Se producen las siguientes intervenciones:

* Ferradas jaunak (Ezker Batua-Berdeak) adierazi du, Hirigintza Batzordean esan zuen moduan, bere Taldeak uste du aukera eder bat galdu dutela, eta bere iritziz ona izango litzake kontuan hartzea etorkizunean gauza bera ez gertatzeko eta herritarren parte-hartzea sustatzeko. Bere logikaren baitan, eta euren ikuspuntutik, alegazioak Legeak jasotzen duen epea baino haratago egin ahal izan beharko lirateke. Bere aburuz, bera esaten ari dena Gipuzkoako Foru Aldundiak, EUDELek eta beste erakundeek ere sustatzen dute. Horregatik, eurek ezin dute onartu proposatu dena, eta eskatzen dute obra batek auzoa —kasu honetan Galtzaraborda— dezente aldatzen badu, herritarrek legez jasota dagoen baino epe zabalagoan iritziak emateko aukera ikusteko eta aztertzeko.

* Interviene el Sr. Ferradás (Ezker Batua-Berdeak) manifestando que, tal y como manifestó en la Comisión de Urbanismo, su Grupo piensa que han perdido una buena ocasión de fomentar la participación ciudadana y sería bueno que tomaran nota hacia futuro. Desde su lógica y tal y como la entienden, ésta tiene que ir más lejos de presentar alegaciones en los periodos de exposición pública, tal y como recoge la Ley. Esto que está comentando es lo que se está fomentando desde la Diputación Foral de Gipuzkoa, desde EUDEL y desde otros organismos. Por tanto, ellos no pueden aprobar lo que se propone y piden que cuando una obra modifica sustancialmente un barrio, como en este caso el de Galtzaraborda, se vea y estudie la posibilidad de que las vecinas y vecinos puedan

trasladar sus opiniones, más allá de lo estrecho que ahora mismo está recogido de forma legal.

* Angulo jaunak (atxiki gabeko zinegotzia) esan du eurek aurreko Udalbatzarrean Parke kaleko orube horretan bizilagunek aspaldidanik eskatzen duten pilotalekuaren alde azaldu zirela, eta orain ere, gauza bera egingo dute. Izan ere, bizilagunen iritzia ez da kontuan hartu, eta hortaz, eurek aurka bozkatuko dute. Horrez gain, proposamenaren inguruan bi aipamen egin nahi ditu: alde batetik, udalbatzarrean askotan aitatzen dute herritarrek eskatzen dutena kontuan hartu behar dela, eta, bere iritziz, hau da garaia herritarrei ahotsa eman eta zer nahi duten zuzenean galdetzeko. Kasu honetan, ea garajeak edo pilotalekua nahi duten galde diezaiokete kontsulta batean. Jakin badakite proposamenean ez daudela lotuta proiektua eta garajeak, baina, halaber, badakite horren atzetik zer datorren: garajeak eraikitzea, hain zuzren ere. Gainera, iritzi-eskatze honek Hirigintzako Aholku Batzordea biltzeko aukera emango luke, eta gisa horretan hainbeste goraipatzen den herritarren parte-hartzea bermatuko litzateke. Bestalde, hara eraman den proposamena ziur aski onartuko denez, eta Galtzaraborda auzoan igogailu batzuek ipiniko direnez, Udal Gobernu Taldeari, igogailu horiek funtziona dezaten, mantentze-gastuetarako Aurrekontuan partida bat aurreikusteko eskatzen diete.

* Interviene en euskera el Sr. Angulo (Concejales no Adscritos) manifestando que en el Pleno anterior se mostraron partidarios de que en el solar de la c/ Parque se realizara un frontón que los vecinos están solicitando desde hace mucho tiempo. Ahora van a efectuar la misma petición, puesto que no se ha tomado en consideración la opinión de los vecinos, motivo por el cual votarán en contra. Además desea comentar dos puntos en torno a este asunto: por una parte, en los plenos, en numerosas ocasiones se suele mencionar que hay que tomar en consideración la opinión de los ciudadanos. Por ello, cree que este es el momento para dar la palabra a los mismos y preguntar directamente qué es lo que desean. En este caso —dice— podrían preguntar a través de una consulta si quieren los garajes o el frontón. Ellos saben que en la propuesta no están vinculados el proyecto y los garajes, pero asimismo son conscientes de lo que hay detrás de la misma: la construcción de garajes. Además, piensa que dicha consulta les daría la posibilidad de reunir a la Comisión de Asesoramiento Urbanístico, a la vez que garantizarían la participación ciudadana que tanto se pregona. Por otra parte, como seguramente va a ser aprobada la propuesta que se ha llevado allí, y como en el barrio de Galtzaraborda se van a construir unos ascensores, solicitan al Equipo de Gobierno que prevea una partida de gastos de mantenimiento en los Presupuestos para que dichos ascensores funcionen.

* Ondoren, Merino alkate jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) jendartetik mikrofonorik gabe eginiko mintzaldi bati erantzun dio. Berak, berak esaten dituen gauzetaz erantzun dezakeela; berak ez dakiela zer esan ziezaiokeen beste pertsona horrek, nork bere baitako zerbait gehitu eta kendu dezakeelako, eta ulertuko duten moduan, bera ezin dela horietaz arduradun egin. Hala eta guztiz ere,

* El Alcalde Sr. Merino (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) responde a una intervención del público realizada fuera de micrófono señalando que, puede responder de lo que él dice, pero no sabe lo que otra persona puede haberle dicho, ya que puede añadir u omitir algo de su cosecha, de lo que, como comprenderán, no se puede hacer responsable. No obstante, quiere decir que este proyecto no arranca

esan nahi du proiektu hori ez dela gaurkoa, ezta atzokoa edo pasa den urtekoa ere, baizik eta, oinarrizko proiektua, duela hiruzpalau urte, gutxienez bi aldiz, aurkeztu zitoela auzoari. Bilerak egin zituzten, eta horietara, auzo elkarteaz gain, auzoko bizilagun gehiago ere joan ziren. Geroztik, proiektuarekin aurrera egin dute, eta hasierako oinarrizko hura aldatu. Geroago, berriz, bizilagunek bilera batera joateko eskatu zioten, berak osoko bilkura batean baietz esan zien, baina hori esan zien, hain zuzen —“Zapatero-plana” dela-eta aurkezturiko beste batzuek bezala, oraindik jakin gabe Madrilek proiektu hori onartuko zuenik, dakiten moduan aurreko osoko bilkuran izena eta xehetasun txikiren bat aldatzeko aurkezturikoa— zuhurtasunik gabe jardutea iruditzen zitzaiolako haiekin bilera egitea. Madriletik proiektu hori besteekin batera onartu zuela esanez albistea iritsi zen egun berean esan zion Iñigori bilerarako deia egiteko, hitz egin duen berak hilaren 16an egingo dela aitatu duena, zeinak idatziz egitea nahi badu, halaxe egingo dena. Alabaina, berak esan zuena zera zen: eurek duten proiektua auzoari aurkeztuko diona dela, eta egileak ere han izango direla. Osoko bilkura horretan soilik Xehetasun Azterlanaren aldaketa bat onartuko dute, proiektua lehendik onartua dute, baina tramitatu ahal izateko, aldaketaren bat eginez gero, exijitzen du berriro osoko bilkurara ekarri eta Udalbatzak bere iritzia ematea. Berak auzoari igogailu-proiektua aurkeztuko dio, hori ez delako aldatu. Garajeetaz hitz egiten dutenean, berak esan behar du hori oraindik erabakitze dagoen kontua dela. Egia da —dio—, egin dutena da —emakida-administratiboko garajeak egin dituzten aldiro egin dena, bestalde— bizilagunei inkesta bat zer nolako eskaria dagoen jakiteko. Gaineratu duenez, batzuetan demanda izaten da, eta bestetaz ez, esaterako, Alabergan eta Agustinetan bazegoen, baina ez Fanderian. Inkesta egiten dutenean, jende gehienak begi onez ikusten badu, etab. aurrera jarraituko dute, baina alderantziz bada, ez, gaineratu du.

hoy, ni anteayer, ni el año pasado, sino que se presentó al barrio al menos en dos ocasiones, hará tres o cuatro años y era el proyecto básico. Tuvieron reuniones a las que asistieron otros vecinos del Barrio, aparte de los miembros de la propia Asociación. Posteriormente han seguido adelante con el proyecto, variando aquel básico o inicial. Luego, por parte de los vecinos se le pidió que asistiera a una reunión, en un Pleno les dijo que así lo haría y les dijo unicamente que dado que no tenían todavía la confirmación de Madrid de que ese proyecto fuera admitido, al igual que los otros que han presentado en el “Plan Zapatero”, siendo éste además el último aprobado, y que como saben se presentó en el Pleno anterior para cambiar su denominación y algún pequeño detalle, le parecía imprudente hacer la reunión sin confirmar esto. El mismo día que le llegó la confirmación de Madrid admitiendo ese proyecto junto con los demás, le dijo a Iñigo que les llamara para convocar una reunión, que quien ha intervenido ya ha mencionado que se celebrará el próximo día 16, y si hay que convocarla por escrito, no se preocupe que lo hará. Pero lo que dijo es que el proyecto que tienen es el que va a presentar al Barrio, acompañado por los redactores del mismo. En este Pleno lo que se aprueba es solamente una modificación del Estudio de Detalle, el proyecto ya está aprobado y la tramitación exige que si hay una modificación se traiga al Pleno y éste se va a pronunciar sobre el Estudio de Detalle. Él presentará al Barrio el Proyecto de Ascensor, eso no cambia. Lo que es verdad cuando hablan de garajes, es que eso está pendiente, como se ha hecho cada vez que se han construido garajes de concesión administrativa, de hacer una encuesta entre el vecindario teoricamente afectado para saber la demanda que hay. A veces hay demanda y otras no, por ejemplo han encontrado demanda en Alaberga y Agustinas y no la han encontrado en Fanderia. Cuando se haga esa encuesta, si la mayoría de la gente lo ve oportuno, adecuado, etc., se seguirá adelante con los

garajes, en caso contrario no se hará.

* Jendartean zegoen beste lagun batek mikrofonorik gabe eginiko galderari erantzunez, Merino alkate jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) zera esan du: uste duela buru-nahasmendu pittin bat duela, ezen igogailuak Udalak egingo ditu “Zapatero-programa”tik datozen diru-laguntzekin %100 ordainduz. Garajeak, aitzitik, inkesta egin ostean aurrera aterako balira, autofinantzatzen dira, orain artean egin diren guztiekin egin den bezala. Azkenak Agustinetakoak eta Alabergakoak izan dira, gaineratu du. Beraz, bada, arazoa ez da aurrekontua, ezta 10 edo 11 izatearena. Hau da, inguru horretako bizilagunei eskaintzen zaienean, zera esango zaie: “hau da balio dezakeena eta hau ordaindu beharko duzue”.

* A preguntas de otra persona del público realizadas fuera de micrófono, el Alcalde Sr. Merino (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) responde que, cree que tiene una cierta confusión mental. Los ascensores los ejecuta el Ayuntamiento con un presupuesto que viene subvencionado al 100% por el Programa Zapatero de Inversiones. Los garajes, si salieran adelante tras hacer la encuesta sobre la hipotética demanda de los mismos, se autofinancian, como se ha hecho con todos los que se han construido hasta ahora, los últimos fueron los de Agustinas y Alaberga. Por tanto no se trata de un problema presupuestario, ni del 10, ni del 11, es decir, cuando se les ofrezca a los ciudadanos del entorno se les dirá, “esto es lo que puede valer, y esto es lo que va a pagar”.

* Jarraian, Alkatea erantzuten ari zitzaion pertsona eta Alkatea beraren artean liskarra sortu da, eta jendarteko lagunak aretotik alde egin du.

* Seguidamente se produce un rifirrafe con la persona a quien el Alcalde respondía y esta persona abandona la sala.

Mintzaldiak amaitutakoan.

Finalizadas las intervenciones.

Udalbatzak, gehiengoz, aldeko 13 botorekin (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, EAJ/PNV, Alkarbide, PP), 6 aurkako (atxiki gabeko zinegotziak) eta 2 abstentzioz (Ezker Batua-Berdeak),

El Pleno de la Corporación, por mayoría de 13 votos a favor (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, EAJ/PNV, Alkarbide, PP), 6 votos en contra (Concejales no Adscritos) y 2 abstenciones (Ezker Batua-Berdeak),

**E R A B A K I D U**

**A C U E R D A**

1.- Tramitatzea Galtzarabordako “Gure Leku” Auzo Elkarteak eginiko alegazioa, akordio honen azalpen-zatian adierazitako arrazoiengatik.

1º.- **Admitir a trámite** la alegación presentada por la AA.VV. “Gure Leku” de Galtzaraborda, y **desestimarla** por los motivos expresados en la parte expositiva del presente acuerdo.

2.- Behin-betiko onespena ematea

2º.- **Aprobar definitivamente** el

***Galtzaraborda Mendebaldea 10. Areako 10/01 (Pilotalekua) E.U.ari buruzko Xehetasun Azterlanaren 1. Aldaketari,*** beti ere VAUNM arquitectura y urbanismo, S.L.P.-ek eginiko dokumentuaren arabera (EHAEOk 2009-11-24an ikuskatua).

documento de **la "*1ª Modificación del Estudio de Detalle, presentado a instancia de parte, de la U.I. 10/01: Frontón del Area 10: Galtzaraborda Oeste*"**, según documento redactado por VAUMN arquitectura y urbanismo, S.L.P. (visado COAVN el 24-11-2009.).

3.- Erabakiaren **berri ematea** Galtzarabordako "Gure Leku" Auzo Elkarteari eta, baleude, gainontzeko interesdunei.

3º.- **Notificar** el presente acuerdo a la AA.VV. "Gure Leku" de Galtzaraborda, así como a los demás interesados, en su caso.

4.- Xehetasun Azterlan honen ale bat **bidaltzea** (ohiko euskarri informatikoan) Gipuzkoako Foru Aldundiari.

4º.- **Remitir** un ejemplar del presente Estudio de Detalle (en soporte informático y convencional), a la Diputación Foral de Gipuzkoa.

5.- Akordio hau oso-osorik, Xehetasun Azterlanaren araudiarekin batera, **argitaratzea** Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, eta, espreski aitatzea Aldundiaren erregistroan jaso dutela. Era berean, probintzian gehien saltzen den egunkari batean behin-betiko onespena argitara ematea.

5º.- **Publicar,** el presente acuerdo integramente, junto con la normativa del Estudio de Detalle, en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Gipuzkoa, haciendo mención expresa de haberse producido el depósito en el registro de Diputación. Asimismo, se publicará el acuerdo de aprobación definitiva en uno de los diarios de mayor circulación de la provincia.

**5.- Proposamena: Errenteriako Udal Liburutegiko funtzionamendu-araudiari hasierako onespena emateko.**

**5.- Propuesta: Aprobación inicial del Reglamento de funcionamiento de los servicios de la Biblioteca Municipal de Errenteria.**

Errenteriako Udal Liburutegiko zerbitzuen funtzionamendu arauen proiektua aztertua izan da.

Examinado el proyecto Reglamento de funcionamiento de los servicios de la Biblioteca Municipal de Errenteria.

Espedientean ageri dira ere Udal Artxibozainaren eta Kultura, Hezkuntza eta Gazteria Saileko Koordinatzaile teknikoaren 2009ko irailaren 10eko txostenak.

Consta en el expediente informe conjunto del Archivero Municipal y de la Coordinadora Técnica de Cultura, Educación y Juventud de fecha 10 de septiembre de 2009.

Kultura batzordearen proposamena ikusitakoan.

Vista la propuesta de la Comisión de Cultura.



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

Mintzatu dira:

* Burgos jaunak (Alkarbide) esan du aurreko osoko bilkuraren batera etorri beharreko gaia dela hau, baina hainbat arrazoi ezberdinagatik —administratiboak eta departamentuak elkar ulertu ez direlako—, ez dute lehenago ekarri ahal izan. Proposamen berrian, Ordenantza hau ilegaltzat jo ez dadin, Batzordean egin ziren eskaerak jasota daude. Hortaz, orain indarrean sar dadin epeak bete daitezen itxaron besterik ez dute egin behar.

Mintzaldia amaitutakoan.

Udalbatzak, aho batez,

**E R A B A K I  D U**

1. Hasierako onespena ematea Errenteriako Udal Liburutegiko zerbitzuen funtzionamendu arauei, espedientean I eranskinean erantsi zazkio.

2. Espedientea jendaurrean jartzea 30 egunez, hain zuzen horretarako iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko iragarki-oholean argitara eman ostean iradokizunak eta erreklamazioak egin ahal izateko.

3. Inork ez balu erreklamaziorik egingo ordenantza behin betiko onartutzat joko da, eta indarrean sartuko da testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren Tokiko Araubide Oinarrien Lege Arautzailearen 65.2 artikuluan aurreikusitako epea igaro ostean.

**6.- Proposamena: Euskal Herriko Justizia**

Se producen las siguientes intervenciones:

* Interviene el Sr. Burgos (Alkarbide) manifestando que es un tema que tenía que haber venido ya a otro Pleno, pero por diversos motivos, unos administrativos y otros por falta de entendimiento entre diferentes departamentos, no se había hecho. En la nueva propuesta se recogen, de manera que no posibilite que se declare ilegal esta Ordenanza, las peticiones que se hicieron en la Comisión, que ya vienen rectificadas. A partir de ahí se dejarán cumplir los plazos y que entre en vigor para que se pueda llevar a efecto.

Finalizadas las intervenciones.

El Pleno de la Corporación por unanimidad,

**A C U E R D A**

1º.- Aprobar inicialmente el Reglamento de funcionamiento de los servicios de la Biblioteca Municipal de Errenteria que se adjunta como Anexo I en el expediente.

2º.- Someter el expediente a información pública y audiencia de los interesados mediante anuncios en el Tablón de Edictos y Boletín Oficial de Gipuzkoa por el plazo de 30 días hábiles para presentación de sugerencias y reclamaciones.

3º.- En el caso de no producirse reclamciones, la ordenanza se entenderá aprobada definitivamente y entrará en vigor una vez se haya publicado íntegramente su texto en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y haya transcurrido el plazo previsto en el artículo 65.2 de la Ley Reguladora de las Bases de Régimen Local.

**6.- Propuesta al Tribunal Superior de Justicia del**



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

**Goreneko Auzitegiak Errenteriako Bake Epaile titularra eta bere ordezkoa izendatzeko.**

Euskal Herriko Justizia Goreneko Auzitegiaren Gobernuko Idazkaritzak Udal honi eskatu zion Bake Epaile titularra eta ordezko berriak hautatu eta ondorengo izendapen-proposamena egin zitzan, hain justu orain izendatuta daudenen lau urteko epea amaitzear dagoelako.

2009ko urriaren 30eko osoko bilkuran hartutako akordio bidez merezimenduen lehiaketa-deia egin zen herri honetako Bake Epaile titularra eta ordezkoa hautatzeko.

Lehiaketako oinarrien arabera Epaimahai kalifikatzaileak, abenduaren 17an egindako bileran lehiakideek adierazi eta justifikatutako merezimenduak baloratu ditu, eta ondorioz, erdietsitako puntuen araberako izangaien zerrenda egin.

Kontuan izanik lehiaketako Epaimahaiak proposaturiko pertsonek Botere Judizialeko Lege Organikoan xedatutako lege-eskakizunak betetzen dituztela Bake Epaile titularra eta ordezkoa izateko, hain zuzen euren eginkizunak egiteko gaituak daudelako edo bateraezintasunik ez dutelako.

Uztailaren 1eko 6/1985 Legearen 101.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, Botere Judizialeko Organikoa, Udaltzarraren eskumena da Bake Epaile kargua hautatzea legezko baldintza bete eta eskaera egiten dutenen artean, akordio hori Udalbatza osatzen duten partaideen gehiengo osoaren aldeko botoekin hartu behar delarik.

**País Vasco de las personas para ser nombradas Juez de Paz titular y sustituto de Errenteria.**

Visto que desde la Secretaría de Gobierno del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco se ha solicitado a este Ayuntamiento que proceda a la elección y posterior propuesta de los nuevos Jueces de Paz Titular y Sustituto, por estar próximo a finalizar el período de cuatro años para el que fueron nombrados los actuales.

Resultando que por acuerdo plenario de fecha 30 de octubre de 2009 fue convocado concurso de méritos para la selección de Juez de Paz titular y sustituto de este municipio.

Resultando que de conformidad con las bases del concurso el Tribunal Calificador, en sesión celebrada el día 17 de diciembre, ha valorado los méritos alegados y justificados por los concursantes, confeccionando una lista de candidatos por orden de puntuación.

Considerando que las personas propuestas por el Tribunal Calificador del concurso reúnen los requisitos legales establecidos en la Ley Orgánica del Poder Judicial para desempeñar los cargos de Juez de Paz titular y sustituto, respectivamente, no estando incursas en ninguna de las causas de incapacidad o incompatibilidad previstas para el desempeño de las funciones judiciales.

Considerando que a tenor de lo dispuesto en el art. 101.2 de la Ley 6/1985, Orgánica del Poder Judicial, de 1 de julio, es competencia del Pleno Municipal acordar la elección del cargo de Juez de Paz entre las personas que reuniendo las condiciones legales así lo soliciten, debiéndose adoptar el acuerdo con el voto favorable de la mayoría absoluta de los miembros de la Corporación.



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

Epaimahaiaren proposamena kontuan izanik.

Halaber, Lehendakaritza eta Barne Antolaketako batzordearen proposamena.

Era berean, Pedro Miguel Barandiaran Ormazabal jaunak 2010eko otsailaren 22an aurkezturiko idatzi bidez uko egin dio Bake Epaile ordezkoa izendatua izateari.

Alkateak 2010eko otsailaren 23an eginiko proposamena jaso da. Bertan Lehendakaritza batzordeak emaniko irizpena aldatzeko eskatzen du, hain zuzen, Pedro Miguel Barandiaran Ormazabal jaunaren ukoa onartuz eta ondorengo izangaia izendatzeko proposamena eginez.

Ondoren, mintzatu dira:

* Angulo jaunak (atxiki gabeko zinegotzia) esan du ez daudela ados Bake-epailea aukeratzeko irizpide zenbaitekin, besteak beste, hizkuntza irizpideekin. Hala ere, oraingo aukeraketa baldintza horietan egina bada ere, eurek dituzten datuen arabera, uste dute hizkuntza eskubideak bermatuak izan daitezkeela. Horregatik, nahiko kritiko bada ere, proposamenari baietza emango diote.

* Merino alkate jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) erantzun du aurreko osoko bilkura batean aitatu zela oso “eskari” gutxi zituen eginkizuna zela. Izan ere, gaiaren berri pitin bat dakien edonork badaki ez dela inolako txoloa; ez da lehiarik izaten postua lortzeko, eta horregatik, euren buruak gogobetetzat jo ditzaketela uste du. Agi denez, titularrak euskara ez duela menperatzen esaten zuten, alabaina esperientziak erakusten du Bake-epaile honek eginiko egintza bakar batean ere, esaterako, ezteiak, etab., ez dela arazorik izan

Vista la propuesta del Tribunal Calificador.

Vista la propuesta de la Comisión de Presidencia y Régimen Interior.

Visto el escrito presentado por D. Pedro Miguel Barandiaran Ormazabal en fecha 22 de febrero de 2010 renunciando a su nombramiento como Juez de Paz sustituto.

Incluída la propuesta del Alcalde de fecha 23 de febrero de 2010 en el sentido de que se modifique el dictamen de la Comisión de Presidencia, aceptando la renuncia de D. Pedro Miguel Barandiaran Ormazabal y proponiendo al siguiente candidato por orden de puntuación.

Se producen las siguientes intervenciones:

* Interviene en euskera el Sr. Angulo (Concejales no Adscritos) manifestando que no están de acuerdo con alguno de los criterios para la selección de Juez de Paz, entre otros, con los criterios lingüísticos. Sin embargo, aunque esta selección se haya efectuado con dichos requisitos, según sus datos, consideran que pueden estar garantizados los derechos lingüísticos. Por dicho motivo, aunque de una forma crítica, van a apoyar la propuesta.

* El Alcalde Sr. Merino Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) responde que, ya se comentó en el Pleno anterior que se trata de un “mercado” muy limitado. Cualquiera que conozca un poco el tema sabe que no se trata de ningún chollo, no hay disputas por acceder al puesto, y por ello tienen que darse por satisfechos de que se cubra. Efectivamente, decían que el titular tiene ciertas carencias con el euskera, pero también ven que su experiencia demuestra que no hay acto o competencia de este Juez de Paz en el que si se

euskaraz egiteko. Gainera, kontuan izan behar dute ez zegoela beste aukerarik, beste alternatiba bete gabe uztea izango litzakeelako. Horregatik, eskertzen du borondate ona, baina, berriro dio, ahaleginak eginda ere, ez dagoela aukera askorik.

quiere la tramitación en euskera, por ejemplo en bodas, etc., nadie está encontrando problemas. Y además, es que no hay otra posibilidad, la otra alternativa sería declararlo desierto. Por tanto, le agradece la buena voluntad, pero repite que a pesar de los esfuerzos que se hacen, no se pueden encontrar muchas alternativas.

Mintzaldiak amaitutakoan.

Finalizadas las intervenciones.

Udalbatzak, aho batez, Udalbatza osatzen duten legezko partaideen gehiengo osoaren quorumarekin,

El Pleno de la Corporación por unanimidad, con el quorum que representa la mayoría absoluta del número legal de sus miembros ,

**E R A B A K I D U**

**A C U E R D A**

1. **ESTEBAN LOS-SANTOS BARRENECHEA jauna** hautatzea Errenteriako Bake Epaile titular, eta **ALBA PEREZ DIAZ andrea** Bake Epaile ordezkari.

2. Udalbatzaren akordioa lurralde honi dagokion Lehen Instantzia eta Instrukzio Epaileari bidaltzea, hain zuzen honek izendapena egingo duen Euskal Erkidegoko Justizia Goreneko Auzitegiaren Gobernu Salari bidal diezaion.

1.- Elegir a **D. ESTEBAN LOS-SANTOS BARRENECHEA**, como Juez de Paz titular de Errenteria y **a Dª. ALBA PEREZ DIAZ** como Jueza de Paz sustituta.

2.- Remitir el acuerdo plenario al Juez de Primera Instancia e Instrucción correspondiente a esta demarcación, para que lo eleve a la Sala de Gobierno del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, que efectuará el nombramiento.

**7.- Proposamena: 2010. urterako Errenteria Musikal Udal Patronatuaren lanpostu zerrenda eta langile-plantila onartzeko.**

**7.- Propuesta: aprobación de la relación de puestos de trabajo y de la plantilla de personal del Patronato Municipal Errenteria Musikal correspondiente al año 2010.**

Udalbatzak onar dezan Errenteria Musikal Udal Patronatuak 2010ean izango duen lanpostu-zerrenda eta langile-plantila onartzeko proposamena egin du.

Remitidas para su aprobación por el Pleno de la Corporación la Plantilla de Personal y Relación de Puestos de Trabajo del Patronato Municipal “Errenteria Musikal” para el año 2010.

Giza Baliabide Saileko AOTk gaiari buruzko txostena egin zuen 2010eko otsailaren 9an.

Visto el informe de la TAG de Recursos Humanos de fecha 9 de febrero de 2010.



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

Lehendakaritza eta Barne-antolaketa batzordearen proposamena ikusitakoan.

Mintzatu dira:

* Cano andreak (atxiki gabeko zinegotzia) esan du, hainbat desadostasun direla eta, aurka bozkatuko dutela. Horien artean, hizkuntza-eskakizunari dagokiona azpimarratu nahi dute. Langile-plantilako asko irakasleak izanda ere, bertan ez da aitatzen derrigorrezko gutxienekoa hirugarrena izan beharko zukeen hizkuntza-eskakizuna, eta bigarren mailarekin azaltzen dira. Hortaz, aurka bozkatuko dute.

* Peña andreak (EAJ/PNV) esan du jada zinegotzi guztiek badakitela, gaia Patronatutik zein Barne-antolaketako Batzordetik pasa delako, konpromisoa hartuta dagoela Errenteria Musikal Patronatuko hizkuntza-eskakizunak exijentziei egokitzeko, eta horrexegatik eskatu diete Euskara Zerbitzuari txostena egin dezan. Gainera, aitatu nahi du kontu hori ez dagoela bazterrean utzitako zerbait, baizik eta, han bertan konpromiso hori aktan jasota geratu zela.

Mintzaldiak amaitutakoan.

Udalbatzak, gehiengoz, aldeko 13 botorekin (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, EAJ/PNV, Alkarbide, PP), 6 boto aurka (atxiki gabeko zinegotziak) eta 2 abstentzioz (Ezker Batua-Berdeak),

**E R A B A K I D U**

- Onartzea Errenteria Musikal Udal Patronatuak 2010ean izango duen lanpostu-zerrenda eta langile-plantila espedientean jasota dagoen bezala.

Vista la propupesta de la Comisión de Presidencia y Régimen Interior.

Se producen las siguientes intervenciones:

* Interviene en euskera la Sra. Cano (Concejales no Adscritos) manifestando que como quiera que tienen diversos desacuerdos, votarán en contra. Ente los mismos desean subrayar el correspondiente a los criterios lingüísticos. Consideran que siendo muchos de los trabajadores profesores tendrían que tener como mínimo el tercer perfil lingüístico preceptivo, pero como tienen el segundo, votarán en contra.

* Interviene la Sra. Peña (EAJ/PNV) manifestando que, a ese respecto señalar que a estas alturas todos los Corporativos saben, puesto que el asunto ha pasado tanto por el Patronato como por la Comisión de Régimen Interior, que existe un compromiso en el Patronato Errenteria Musikal de adecuar los perfiles a las exigencias. Para eso se ha solicitado informe al Servicio de Euskera y comentar que no es un tema que esté sin trabajar, sino que allí mismo se recogió en acta el citado compromiso.

Finalizadas las intervenciones.

El Pleno de la Corporación por mayoría de 13 votos a favor (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, EAJ/PNV, Alkarbide, PP), 6 votos en contra (Concejales no Adscritos) y 2 abstenciones (Ezker Batua-Berdeak),

***A C U E R D A***

- Aprobar la plantilla y la relación de puestos de trabajo del Patronato Municipal Errenteria Musikal para el año 2010, tal y como queda configurada en el expediente.



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

**8.- Proposamena: 2010. urterako "Jesusen Bihotza Adinekoen Egoitza" Udal Patronatuaren lanpostu zerrenda eta langile-plantila onartzeko.**

Udalbatzak onar dezan Jesusen Bihotza Adinekoen Egoitza Udal Patronatuak 2010ean izango duen lanpostu-zerrenda eta langile-plantila onartzeko proposamena egin du.

Giza Baliabide Saileko AOTk gaiari buruzko txostena egin zuen 2010eko otsailaren 9an.

Lehendakaritza eta Barne-antolaketa batzordearen proposamena ikusitakoan.

Mintzatu dira:

* Peña andreak (EAJ/PNV) esan du aurreko puntuari buruz zera erantsi nahi duela: Errenteria Musikal Patronatuak Jesusen Bihotza Adinekoen Egoitzako Patronatuak markatutako bidea jarraitzen duela. Izan ere, han, Patronatuak berak eskatuta, hizkuntza-eskakizunak egokitu zituzten.

Mintzaldiak amaitutakoan.

Udalbatzak, gehiengoz, aldeko 13 botorekin (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, EAJ/PNV, Alkarbide, PP) eta 8 abstentzioz (atxiki gabeko zinegotziak, Ezker Batua-Berdeak),

**E R A B A K I D U**

- Onartzea Jesusen Bihotza Adinekoen Egoitza Udal Patronatuak 2010ean izango duen

**8.- Propuesta: aprobación de la relación de puestos de trabajo y de la plantilla de personal del Patronato Municipal "Residencia de Ancianos Sagrado Corazón" correspondiente al año 2010.**

Remitidas para su aprobación por el Pleno de la Corporación la Plantilla de Personal y la Relación de Puestos de Trabajo del Patronato Municipal Residencia de Ancianos Sagrado Corazón para el año 2010.

Visto el informe de la TAG de Recursos Humanos de fecha 9 de febrero de 2010.

Vista la propuesta de la Comisión de Presidencia y Régimen Interior.

Se producen las siguientes intervenciones:

* Interviene la Sra. Peña (EAJ/PNV) manifestando que, sobre la intervención anterior señalar que el Patronato Errenteria Musikal sigue precisamente la linea marcada por el Patronado de la Residencia del Sagrado Corazón, donde en su momento y a instancias del propio Patronato, se dio una adecuación de los perfiles.

Finalizadas las intervenciones.

El Pleno de la Corporación por mayoría de 13 votos a favor (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, EAJ/PNV, Alkarbide, PP) y 8 abstenciones (Ezker Batua-Berdeak, Concejales no Adscritos),

**A C U E R D A**

- Aprobar la Plantilla y la Relación de Puestos de Trabajo del Patronato Municipal



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

lanpostu-zerrenda eta langile-plantila espedientean jasota dagoen bezala.

Residencia de Ancianos Sagrado Corazón para el año 2010, tal y como queda configurada en el expediente.

**9.- Proposamena: 2010. urterako Udal Kirol Patronatuaren lanpostu zerrenda eta langile-plantila onartzeko.**

**9.- Propuesta: aprobación de la relación de puestos de trabajo y de la plantilla de personal del Patronato Municipal de Deportes, correspondiente al año 2010.**

Udalbatzak onar dezan Udalaren Kirol Patronatuak 2010ean izango duen lanpostu-zerrenda eta langile-plantila onartzeko proposamena egin du.

Remitidas para su aprobación por el Pleno de la Corporación la Plantilla de Personal y la Relación de Puestos de Trabajo del "Patronato Municipal de Deportes de Errenteria"_para el año 2010.

Giza Baliabide Saileko AOTk gaiari buruzko txostena egin zuen 2010eko otsailaren 11an.

Visto el informe de la TAG de Recursos Humanos de fecha 11 de febrero de 2010.

Lehendakaritza eta Barne-antolaketa batzordearen proposamenez.

A propuesta de la Comisión de Presidencia y Régimen Interior.

Udalbatzak, gehiengoz, aldeko 13 botorekin (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, EAJ/PNV, Alkarbide, PP) eta 8 abstentzioz (atxiki gabeko zinegotziak, Ezker Batua-Berdeak),

El Pleno de la Corporación por mayoría de 13 votos a favor (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, EAJ/PNV, Alkarbide, PP) y 8 abstenciones (Ezker Batua-Berdeak, Concejales no Adscritos),

**E R A B A K I D U**

**A C U E R D A**

- Onartzea Udalaren Kirol Patronatuak 2010ean izango duen lanpostu-zerrenda eta langile-plantila espedientean jasota dagoen bezala.

- Aprobar la Relación de Puestos de Trabajo y la plantilla orgánica del Patronato Municipal de Deportes para el ejercicio 2010, tal y como queda configurada en el expediente.

**10.- Proposamena: 2010. urterako Errenteriako Udalaren lanpostu zerrenda onartzea.**

**10.- Propuesta: aprobación de la relación de puestos de trabajo del Ayuntamiento de Errenteria correspondiente al año 2010.**

Funtzio Publikoa eraldatzeko Neurriei buruzko 15.1 artikuluan jasota dagoenaren arabera,

Conforme a lo dispuesto en el artículo 15.1 de LMRFP, las relaciones de puestos de trabajo "*son*



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

lanpostu-zerrendak "baliabide teknikotzat jotzen dira, hain zuzen horien bidez langileria antolatzen delako zerbitzu-beharren eta lanpostu bakoitzekoa egiteko bete behar diren baldintzen arabera".

*el instrumento técnico a través del cual se realiza la ordenación del personal, de acuerdo con las necesidades de los servicios y se precisan los requisitos para el desempeño de cada puesto"*

Kontuan izanik onartzeko proposamen honetako Lanpostuen Zerrendak sortuko dituen gastuak bat datozela aurtengorako aurreikusitako langile-plantilarekin, zeina onartzeko jarriko baita.

Resultando que las dotaciones económicas que se derivan de la Relación de Puestos de Trabajo que por la presente propuesta se someten a aprobación, coinciden con las previsiones de la plantilla de personal, que también se somete a aprobación plenaria.

Kontuan izanik halaber, lanpostuen zerrendak, izaera dinamikoa duenez, maiz eguneratu behar izaten dela, hain zuzen Udalaren antolamendu-beharren araberakoa izan dadin.

Resultando que la relación de puestos de trabajo viene siendo objeto de constantes actualizaciones como consecuencia de su naturaleza dinámica y con el propósito de que en todo momento resulte la expresión real de las necesidades organizativas de este Ayuntamiento.

Aldaketa horiek, horretarako eginiko memorian jasota geratu dira, eta halaber, espedientean.

Resultando que las citadas modificaciones han quedado reflejadas en la memoria explicativa realizada al efecto y que consta en el expediente.

Bestalde, Lanpostuen Zerrendek, *Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren 74. artikuluaren babespean, gutxienez zera jaso behar dituzte: lanpostu bakoitzaren izen zehatza, zenbat lanpostu diren, zein sailera dauden izendatuak, prozesua zein Administrazioko langileei dagoen irekia, zein talde edo kidegokoak diren, betetzeko modua, ordainsari osagarriak. Eta gure kasuan, baita lanpostu bakoitzak izendatuta daukan hizkuntza-eskakizuna derrigortasun datarekin (EFPLren 15.1 d art.).*

Considerando, por otra parte, que las Relaciones de Puestos de Trabajo, al amparo del artículo 74 del Estatuto Básico del Empleado Público, han de contener, al menos, *la denominación de los puestos, los grupos de clasificación profesional, los Cuerpos o Escalas, en su caso, a que estén adscritos, los sistemas de provisión y las retribuciones complementarias"* y, también en nuestro caso, el perfil lingüístico asignado a cada uno de ellos con indicación de la fecha de preceptividad, (art.15.1d de la LFPV).

Memoria horretan xedatutakoaren arabera, hala nola TAOLen 22, 23 eta 90.2 artikuluetan, TABT-ren 126.4 eta 127 artikuluetan, Euskal Funtzio Publikoko Legearen II. Tituluaren I. Kapituluan eta osagarri gisa aplika litekeen estatu-araudia.

En virtud de lo dispuesto en la normativa citada, así como en los artículos 22, 23 y 90.2 de la LRBRL, 126.4 y 127 del TRRL, el Capítulo I del Título II de la Ley de la Función Pública Vasca y la normativa estatal básica (LEBEP) y la de carácter



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

supletorio que resulte de aplicación.

Giza Baliabide Saileko teknikari Asun Hernandez Rodriguez andrearen 2010eko otsailaren 8ko txostena ikusi dute.

Visto el informe de la Técnico de Recursos Humanos, Asun Hernández Rodríguez, de fecha 08 de febrero de 2010.

Lehendakaritza eta Barne-antolaketa batzordearen proposamena ikusitakoan.

Vista la propuesta de la Comisión de Presidencia y Régimen Interior.

Mintzatu dira:

Se producen las siguientes intervenciones:

